

Alfonso Sansebastian Izeta
Zarautz, Gipuzkoa (1918-1999)

Aurkibidea

Biografia

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean. Gerrako kontuak eta herrian egindako obrei buruzko kontu interesgarriak aipatzen ditu.

Zintak

ZAR-121

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Santxez, Oskar
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Santxez, Oskar

Pasarteak

1. II. Errepublika eta gerrako oroitzapenak

- **Erref:** ZAR-121/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:01:37. **Bukatu:** 00:04:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Txikia zela, diktadura zegoen, eta, gero, Errepublika iritsi zen. Ordutik Zarautz asko aldatu da: lehen denak ezagutzen ziren. Gerrako denbora guztian egon zen boluntario. Santanderren preso hartu zuten. Gerrako oroitzapen txar asko ditu. Gerra garaian, bitan egon zen kartzelan.</p>

Transkripzioa

- Txikia ziñanian, Zarautzen zerbait berezirik gertatu al zen?
- Bai, gauza batzuek; eta geo, zeana, inportantenak zian ordun Diktadurak eta zian, ta Republika etorri zana “año treinta y unon”
- Asko aldatu da Zarautz ordudanik?
- Asko, zeatikan ordun Zarautza zan txiki-txiki, herri txiki bat, ez zan aillatuko bost milla habitante, eta gutxiyo’re. Eta ordun danok ezagutzen giñan, danok ezagutzen giñan, ta bai izenez ta bai apeillidoz.
- Gerran egon al ziñen?
- Bai, egon nintzan gerra guztiyan. Boluntayo jun nintzan Republikakin. Ta Santanderren agostuan hogeita seiyan prisionero harrapatu niñuen.
- Zein oroigarri duzu gerrataz?
- Gauza txar asko, zeatik, este, hiru urten gerran ibiliya danak oso rekuerto txarrak izaten dittu. Gerra badakigu zer dan, o ondo ikasi giñun behintzat zer zan.
- Gerratean kartzelan egon al ziñen?
- Bai, bi... bitan egon nintzan: aurrena prisionero eraman niñuenen, hartu niñuenen, eraman zien Santanderretikan Monte Albertian barkuan Santoiña. Han zauren kartzelan kuartela, ta institutua, ta hoyek danak kartzelaz ta jarriyak zauden. Geo bigarren aldiz eraman niñuen frentian naola Francokin, zazpi hillabete... beatzi hillabetea reklamata, Santoñako kartzelatikan informiak hartu zittuelako Zarautzitan oso txarrak.

2. Euskara eta gerra

- **Erref:** ZAR-121/003
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:04:12. **Bukatu:** 00:06:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Euskaraz hitz egiteko, kartzelan arazoak izan zituen. Horri buruzko anekdota bat kontatzen du. Lehen euskaraz asko hitz egiten zen; baina, gerraren

ondorioz, jendeak kanpora joan behar izan zuenean, erdaraz gehiago egiten zuen euskaraz baino.

Transkripzioa

- Zure garaian problema gehiegi eduki al dituzu euskeraz hitz egiteko?
- Kartzelatik atera ta bastante kuarteletan ibili giñan tokitan bai, kuarteletan. Hortako badakat anekdota txiki bat esplikatzeke moukua. Gu presuak nola giñan atzeneko turnuan, kuartelen jaten giñun bazkaya, ta otordua ematen ziguen azkena. Ta formatuta gauela patiyuan, sei lagun giñan hemenguak, euskaldunak; ta bat zan bizkaitarra, ta erderaz ez zakin batere, ezer'e. Eta in ber izaten giñun, ba, haren aurrian euskeraz. Ta kapitan batek ikusi giñun, ta galdetu zigun ze hitz egiten ai giñan. Ta esplikatu giñun esanez, ba, euskeraz hitz eiten ai giñala zergaitikan gizon batek ez zakilla erderaz, ta horreatikan hitz eiten giñula. Ba, haren kontestaziyua izan zan, ba, kastigatu in giñun bazkai, bazkaldu gabe.
- Zer aldaketa eduki ditu euskerak?
- Haundiyak. Gure gazte denboran euskeraz asko hitz eiten zan, nahiz gaizki. Baiño gero gerrak'e jende asko gelditu zan gerra jun, ta ez giñun ordun erderaz ondo hitz eiten. Ta gerra jun eta hor baztar hoietan kanbiyo asko ikusi giñun. Ta ordun, ba, han hitz ein ber zan erderaz. Nere kasuan, berriz, ni eon nintzan burgalesak eta palentinuakin danak, ta euskeraz neu bakarrikan izango nintzan batailloyan. Ta horregatikan, jende askoek geo bueltan, guk bezala zazpi urte pasa ta etxea etorri giñanen, erderaz geyo iten giñun euskeraz baiño. Orain, oain kanbiyo honek in dunak, guk euskera oain don euskera berri hau ez deu ezautzen, ez dakigu batua o esaten diyoena. Baiño, lehengoko euskera baiño gaur o biharko, oain dauren gazte jendiantzako askoz hobia, zeatikan hemendik urte batzuta, euskeraz danak jakingo due ondo. Esaten dan bezela, "gramaticalmente" ta...

3. Pertsonaia ezagunak Zarautzen

- **Erref:** ZAR-121/004
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:06:51. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Pertsonaia xeble batzuk ezagutu izan ditu: politikariak, bertsolariak...

Transkripzioa

- Zeure denboretan pertsonai xeble edo garrantzitsuak ezagutu al dituzu? Bertsolaiak, deportistak, politikoak eta abar.
- Bai, ezagutu nittun politikuak'e hemen Zarautzen, ba, izaten zian ta, bertsolaiak'e bai ta... Ezautu giñun "Conde de Romanones", zelebria zan zeatik, guretzako, zeatikan guardaespaldakin ibiltzen zan epoka hartan. Geo hemen Zautzen beraneatzea etortzen zan, etortzen zian, Julian Besteiro politikua, ta zea're bai, Marzial La Landa, Txirrita ta beste bertsolai asko honea etortzen zianak.

4. Zarautzen egindako berrikuntzak

- **Erref:** ZAR-121/005
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:11:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Gaztea zenean, Zarautzen zer eraikuntza eta erreforma egin ziren aipatzen du.

Transkripzioa

- Zeure denboretan ze erreforma edo konstruzio inportante egin zituzten Zarautzen?

- Zarautzen egin zian hasierakuak urak Igeldotik ekarri; ta gero adokiñak jarri zizkien gaur printzipal dian kaliei: konpaziyo batea, San Frantzisko kale erdiyai, Txerri kaliai, Santa Marina kaliai, gaur Ipar kalea plazatikan Santa Mariña aldea, ta Zigordi kalia. Hoyek danak obra adokiña jarri zizkioen. Gero printzipalak izan zian abenida Alameda, Alameda iriki zuenen, Ataneronetikan Iñurritzaiño karretera zabal bat, Zautzek oso biharrekua zakan. Ta hua iriki zan, ta gaur danak hor do ikusteko ze mejora izan zun. Handikan, beste Iñurritzan in zuen basurero baten parke parke koskor bat, basurerua aprobetxatu, ta gaiñontzekua gero basurero geatu zan errekaño. Parke hua oso oso zea geatu zan, zeatikan San Pelaiotan, ta festak iten zienen, ta Euskal Festetan, ta septienbreko euskal festetan, ta hoitan, han iten zan erromeya. Gero obrak'e inportantiak in zian kamiyua, bueno, Alberdiñeko palaziyo hori bota, ta pasua in zuenen, zea, esto, plaia, kostara. Geo, handik aurea geo in zuen tunela, baiña hori geroko kontua. Geo Getai kamiyuan izugarrizko obrak in zituen, balkoiakin tuneleraño. Balkoiak asko; balkoi pilla haundiya. Ta geo moillan barruan dana, esto, rebestimento bat oso oso polita jarri zuen baldosak, baldosakin. Ta ya han kukaiñak eta festak, pizina izango balitzake bezela. Geo urte haietan in zituen beste obra batzuetan, esto, jardiñak eta lore asko Zautzen, ordun dana herri guztiya dana lorez beteta egon zan, zuen. Geo gaiñuntzen, esan leike, ba, poligonuak eta in zianen, aber ze kanbiyok etorri zian honea, ze kanbiyok etorri zian honea... Zeatikan, esto, bigarren partia, Alamedako bigarren partia bota, ta parrokiraiño jarri zanen, Zautzek irabazi zun ordun, ba, asko. Ta geo, San Pelayon'e, Iñurritzan, in zuen parkia hasi, leno basurerua zan, ta konpletua dana parkia oain han do oso oso earki. Gero, Gipuzkoa kalia're mejora haundiya in zizkien. Hori ia oaingo kontuak dia. Ta poligonokua ze esango deu, ba? Poligonuak izan dia Zauzko herriyan, leno Zautzek lau milla o bost milla habitante baldin bazitun, poligono bakoitzak dazka hoyek baiño geyo habitantek bizi dianak.

5. Zarausko etxeak eta kaleak lehen

- **Erref:** ZAR-121/006
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:11:52. **Bukatu:** 00:13:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Lehen Zarauzko etxeak eta kaleak nolakoak ziren azaltzen du. Ukuilu eta sagardotegi asko zegoen. Askok aldatu da herria.</p>

Transkripzioa

- Eta bukatzeko, zure garaian nolakoak ziren etxeak, kaleak eta abar? Hemen denboa hartan, zian kaliak, leno esan deten hoyek, adokiñatuta zianak, hoyek lurrezkuak zian; ta ebiya iten zunen, ba, lokatz haundiyak. Eta herriya holaxe zan: herriya txikiya, lokatza, ukuillu asko e? Kale printzipaletan'e ukuillu asko... Ta geo, sagardoteyak'e asko zian, tabernak baiño geyo; konparazyuan, tabernak ez zan honbeste hemen, sagardoteyak dana. Dana, hemengo jendia ordun, sanua zan, ta sardiña zarrakin sagardotegira. Sagardotegiyan sardiña zarra librako opillakin jan, ta beste sagardo mordo bat edan, ta listo. Hemen bezela, oain bezela ez zan: ordun kuba-libre eta Mejiko Lindo, ta holako edaririk eta [...]. Oseake sentido hortan, ziharo kanbiatu da herriya. Sentido hortan ez daka zeaik.

6. Zarautzen egindako hobekuntzak

- **Erref:** ZAR-121/007
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:13:02. **Bukatu:** 00:15:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Zarauzko bideetan egindako hobekuntzak aipatzen ditu. Altzola menditik urak ekarri zituzteneko lanak oso garrantzitsuak izan ziren Zarautzen. Azken urteotan herrian egindako obra batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa

Ta geo, beste zea bat leno esan ez deuna... Ta, ba, geo herriyan in dian meyorak zian geo, leno aztu in zat esatia: Urtetako kamiya, Urdanetako kamiya, ta esto, Elkanoko kamiya. Ta hoi danak meyoa haundiyak izan dia Zautzako, zeatikan baserritar guztiyak leno astuakin etorri ber izaten zutenak kalea, ta oain danak badake kotxia, "dos caballos" eo holako kotxe bat badake, eta berdurak eta gauzak hartu, ta egunero etortzeko moduan Zauzko plaza. Barkatu berko diazu, zeatikan gauza batzuek aztu zaizkit esatia, jartzia: hemen obra printzipala izan zan, jende asko zai zeona, urak ekartzia Altzola menditikan; ta hua izan zan hemen Zarautzen oso inportantia. Gero ez dittut sartu hemen oain azkeneko urte hoitan herriyak in dun buelta izan da izugarriya. Hemengo San Pelayoko kanala iriki; desaguiak danak berritu; urak eta, esto, zikiñak apartatuta dijuatzela herri guztikuak; hemen plazan in dan kiosko berriya; hor trafikoik ez dakan kaliak arreglatu dittuen bezela, harri... harri kaliz, harri oso oso

elegantiakin, ta bai baldosak'e oso politak. Ta herriya oain atzeneko urte
hoitan, ziharo kanbiatu da. Horixe aztu zitzaten jartzia.

Sansebastian Izeta, Alfonso | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com